



JULEN ARANGUREN

ZARAUZKO UDALA
GIZARTE ZERBITZUAK
IMMIGRAZIO ETA KULTUR
ANIZTASUNAREN TEKNIKARIA

MIGRATZAILE ETORRI BERRIAK ETA EUSKARA

Hemen irakurriko dituzunak lan-eskarmentuan oinarritutakoak dira; oso testuinguru zehatz batean, hain zuzen ere, Zarautzen egindako lanaren emaitza. Zarautzek baditu berezi egiten duten ezaugarri batzuk, hizpide diren eta uztartu nahi ditugun bi gaitan: immigrazioa eta euskara.

Alde batetik, herri euskalduna da, 23.301 biztanle ditu¹, eta euskaldunena da tamaina horretako herrien artean. 2016ko datuen arabera, zarautzarren % 74,14 da euskalduna eta beste % 11 ia euskalduna². Horrek esan nahi du herrian % 15 baino ez direla euskaraz ez dakitenak. Horietatik asko, baina ez gehienak, azken hamarkada eta erdian atzerritik iritsi diren bizilagunak dira.

Beste alde batetik, Gipuzkoako gainerako herrieekin alderatuz, immigrazio gutxiago jaso du Zarautzek. EUSTATEN datuen arabera³, zarautzarren % 8,3 da atzerrian jaiotakoa. Kopuru horri, garai batean erbestean jaiotakoak (Mexiko, Venezuela, Frantzia) eta nazioarteko adopzioak kendu behar zaizkio. Beraz, nire estimazioa da zarautzarren % 7,5 inguru izango dela azken urteotan atzerritik iritsi diren etorkinak, 1.800 lagun inguru.

1. EUSTAT (Datu estatistikoak)
https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/zarautz.html (Kontsulta: 2020-03-28).

2. ZARAUZKO UDALA
<https://www.zarautz.eus/eu/-/datu-soziolinguistikoak> (Kontsulta: 2020-03-28).

3. EUSTAT (Datu estatistikoak)
https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/zarautz.html (Kontsulta: 2020-03-28).

Immigrazio apala dugu, hortaz, eta gainera “atsegina”; izan ere, ez baita gauza bera herrian nagusiki pakistandar jatorriko immigrazioa izatea edo, gurean bezala, gehiengo nikaraguar jatorrikoa izatea. Ez ditugu berdin hartzen, ezta berdin ikusten ere, sinpatia maila ezberdinak baititugu jatorriaren arabera. Oro har, zenbat eta gure antz handiagoa izan, orduan eta hobeto hartzen ditugu atzerrik iristen ari zaizkigun bizilagunak. Hori ematen du aditzera Euskal Immigrazioaren Behatokia den IKUSPEGIk jatorri atzeritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak neurtzeko argitaratzen dituen barometroetan⁴.

Beraz, euskalduna den eta immigrazio apala eta atsegina duen herri bati buruz arituko gara. Zalantzarik gabe, migratzaile etorri berriak euskarara hurbiltzeko testuinguru aproposena.

Nolanahi ere, jakitun naiz ez dela hori Euskal Herriko testuinguru ohikoena eta ez dakit zenbateraino izan daitekeen Euskal Herriko beste testuinguru sozio-linguistiko batzuetara eramangarria.

Horrenbestez, alde batetik, gertakari berri bat dugu gure herrietan: nazioartetik iritsitako immigrazioa, zenbait euskaltzalek kezka moduan bizi dutena; lehendik ere motela eta malkartsua izaten ari da euskalduntzea oztopatu edota gutxienez geldotuko duelakoan. Amelia Barquinek “Mesfidantza Kulturala” gisa definitu zuena: “Badago sentimendu bat euskaldun batzuek adierazten dutena eta azterketa merezi duena: etorri berriekiko mesfidantza –«kulturala» esan dezagun–. «Hori bakarrik falta zitzaigun» moduko bat” (Amelia Barquin 2008)⁵.

Eta bestetik, gizartearen gehiengo zabalaren nahia, borondate politikoaren bitartez gauzatzen dena, euskara biziberritzeko politikak egin daitezten.

Eta, horretarako, ezinbestekoa da bizilagun berri horiek euskarara erakaritzea. Aurrerago ikusiko dugu nola, baina hori egin baino lehen, ariketa ona izan daiteke bestearen lepoan jartzea.

Behin, Nikaraguatik gure herrira lanera etorritako emakume batek zera esan zidan: hona etorri aurretik, berak ez zekiela Espainian gazteleraz aparte beste hizkuntzarik hitz egiten zenik. Marcela deituko diogu emakume horri (izena asmatutakoa da baina historia eta emakumea bera benetakoak dira).


Marcelaren migrazio-ibilbidea paradigmatikoa da Zarautzen: emakume nikaraguarra da; nekazaritza-eremu batekoa, Somoto inguruko migrazio ibilbideari bakarrik ekin dio, horretarako, familia osoa zorpetuz; adin txikiko seme-alabak ditu, bere amaren zaintzapean utzi dituenak. Hasieran ez du paperik, badaki gutxienez hiru urte itxaron beharko dituela horretarako eta paperak izan arte ez duela berriz bere familia ikusiko. Badaki lan baldintza kaskarrak onartu beharko dituela; zaintza lanetan arituko da, gure atso-agureak zaintzen. Hasiera batean, behintzat, etxeko barruko langile gisa arituko da *jo eta su* lanean; horrela, behintzat, ez du alokairurik ordaindu behar izango eta diru gehiago izango du etxekoei bidaltzeko.

Bere asmoa hemen hiruzpalau urtez egotea da, lan asko eginez eta ahalik eta gehien aurreztuz, bueltatzen denean bere familiari etorkizun oparagoa eskaintzeko aurreztutakoari esker: haurrak eskola hobeetara bidali, negozio txiki bat jarri, edota etxetxo bat erosi. Baina denborak aurrera egin ahala, bueltatzeko grina ahituko zaio eta Euskal Herrian geratzeko borondatea gailenduko zaio,

4. IKUSPEGI (Barometroak)

https://www.ikuspegi.eu/documentos/barometros/2019/bar_GAE_2019_EUS.pdf (Kontsulta: 2020-03-28).

5. BARQUÍN, Amelia (1965). Immigrazioa eta euskara: gogoetarako zenbait gai. Jakin aldizkaria, 165 (2008) 75-97.



hermes



hermes



hemengo bizitza kalitatea hobea delako eta, batez ere, uste duelako jaioterrian baino etorkizun oparagoa izango dutela bere seme-alabek. Gainera, emakumea izanda, hemen askatasun handiagoa duela nabaritzen du eta bere alabak bere herrian baino bizitza hobea izango duela.

Beraz, aurrerantzean nahi bat baino ez du izango, nahiitsu-itsua: bere seme-alabak ekartzea. Horretarako, paperak izan beharko ditu, eta gutxienez, eta onenera jota, Euskal Herrira iritsi zenetik lau urte pasatu ondoren eta bere lehendabiziko egoitza baimena berritzen duenean izango du bere seme-alabak legez ekartzeko aukera, baldin eta, etxebizitza errentan hartuta badauka eta hilean diru-sarrera nahikoak baditu. Baldintzak betetzen baditu, Marcelak bere haurrak legez ekarriko ditu, eta ezin baditu baldintzak bete, turista gisa ekarriko ditu eta oporretarako legezko epea amaitu eta gero, hemen geratuko dira egoera administratibo irregularran.

Behingoz, urte asko elkarrengandik urrun pasatu eta gero familia berriz elkarrekin biziko da. Ipuina ez da, baina, hemen bukatzen amaiera zoriotsu batekin. Akaso Nikaraguan utzi zituen seme-alabak, honezkerok, ez dira umeak, nerabezaro bete-betean dauden gazte koskortuak baizik. Eta askotan, beraiek ez dute etorri nahi izaten; amona utzi, lagunak ere bai, eta abar. Amarekin hase-re daude txikitan utzi zituelako, eta ez dute bere agintea onartzen eta etxeko giroa gatazka-leku bihurtu da. Gainera, ingurune berri batera egokitu beharra dute gazte horiek, lagun berriak egin. Eta eskolan ikasturte bat beherago jarri dituzte eta ulertzen ez dieten hizkuntza batean hitz egiten diete, den-denek irakasle nahiz eskolako kideek gaztelania ulertu eta hitz egiten badute ere.

Eta ingurumari horretan, non geratzen da gure euskara? Zer garrantzi izan dezake euskarak Marcelarentzat, Euskal Herrian bizi eta lan egiteko euskara beharrezkoa ez denean? Ez Zarautzen, eta ez beste inon. Eta gainera, badago jende asko, bertan jaioak direnak eta euskaraz ez dakitenak, eta beste batzuk, euskaraz jakin arren, beti erdaraz mintzo direnak. A zer nahasmena izan behar duen buruan gure Marcelak eta bere familiak!

Horrenbestez, alde batetik gure nahia dugu, gure borondatea; eta bestetik, bestearen, alegia, atzeritik etorritakoaren, premia. Nahita erabili ditut gure kasuan nahia hitza eta etorkinarenean premia. Izan ere, gure nahia gure herria euskalduntzea da, baina hori ez da etorri berriaren nahia, eta, gainera, beste "premia" batzuk ditu etorri berri horrek. Bere Maslowren piramidean⁶ sartu ere ez da egiten euskara. Horrela, testuinguru horretan, gure egitekoa da euskara Marcelaren Maslowren piramidean sartzea, erpinean bada ere.

Beraz, gakoa honetan datza: gure nahia nonbait Marcelaren premiarekin gurutzatzea. Hau da, euskalduntzea eta integrazioaren arteko bidegurutzeta aurkitu edota eraikitzea. Eta uste dut dagoeneko badela bidegurutze hori, gutxienez, euskarak presentzia soziala duen herrietan. Integrazioaz ari naizenean, gizarteratzeaz ari naiz, nagusiki, alderdi kulturalista bigarren mailan jarri.

Zer da euskara Marcelarentzat? Marcelarentzat, bera baino hobeto bizi den jendearen hizkuntza da euskara.

Gaur egun, euskarak, beste garai batzuetan ez bezala, prestigio soziala du. Eta horrek berealdiko garrantzia du bizilagun etorkinak euskarara erakartzeko aldera. Eta horretaz azkar konturatzen dira gure bizilagun migratzaileak. Normalean, gizarte bateko kide ausart, argi eta prestuenek hartzen dute migratzeko hautua. Pertsona horiek, beti ere orokorrean hartuta, erraztasun handiagoa dute

6. ECONOMIPEDIA
<https://economipedia.com/definiciones/piramide-de-maslow.html> (Kontsulta: 2020-04-02).

egoera berriak ulertu eta inguru berrira egokitzeko. Sekula migratu ez dutenak baino askoz ere erresilienteagoak dira, eta hori kontuan ez hartzea izaten da sarritan pertsona etorkinekin lan egiten dugunon akats arruntenetakoa.

2014ko abenduan, ikerketa bat egin genuen Zarauzko Udalean Parekidetasun Sailarekin elkarlanean. Ikerketak ez zuen helburu zientifikorik, etxe barrurako egindako arlo-lana izan zen, gure informazio kanalak eta esku-hartze programak egokitzea xede zuena. Horrela, Venezuelatik iritsitako langile bat kontratatu eta lokutorioetara bidali genuen atzerritik etorritako emakume zarauztarrei galderak egitera.

Guztira 57 emakume izan ziren galdetegia erantzun zutenak eta lagina txikia bada ere, unibertsoa Zarauzko emakume etorkin guztiak izanda, 57 bada ondorio batzuk ateratzeko moduko kopurua.

Askotarikoak izan ziren galderetan jasotako gaiak: etxebizitza, harremanak, paperak, indarkeria matxista eta abar. Horien artean, baita euskara ere.


Ikerketan, migrazio prozesu guztietan bezala, hiru garai bereizten ziren migrazio prozesuan: etorrera (iristen diren unetik 3 urte igaro arte) kokatzea (3. urtetik zazpigarrenera) eta finkatzea (zazpigarren urtetik aurrera). Aldiak gutxi gorabeherakoak dira, eta pertsonaren arabera alda daitezke. Hala eta guztiz ere, migrazio prozesua bere osotasunean ulertzeko balio digute denborazko hiru kategoria orokor horiek.

Euskarari dagokionez, bi gauza erakutsi zizkiguten datuek:

1. Migratzailearen errotze prozesuak aurrera egin ahala, gero eta garrantzi handiagoa ematen diotela euskara ikasteari. Hala eta guztiz ere, galdetutako gaien artean, garrantzi gutxien ematen zioten aldagaia zen. Beraz, euskara ikastea ez da pertsona horien Maslowren piramidean sartzen, hots, ez da beraien lehentasunetan sartzen.
2. Aldi berean, galdera hau egin genien: zer garrantzi du zuretzat zure seme-alabek euskara ikasteak? Etorrera garaian zeuden emakumeek ez zuten galderari erantzun, seme-alabek jatorrizko lurraldean zituztelako eta, gehienetan, beraien asmoa hiru urte igaro baino lehenago jatorrizko lurraldera bueltatzea baitzen. Baina, seme-alabak hemen zituztenentzat, galdetutako gaien artean garrantzi handiena ematen zioten kontua zen, jatorrizko herrialdera dirua bidali edota harreman sozialen aurretik. Beraz, hurrengo belaunaldiarekiko asmoetan, bai sartzen dutela euskara pertsona migratzaileek nork bere Maslowren piramidean. Badakite, konturatu dira, euskara jakiteak beraien seme-alabei aukera gehiago emango diela hemen hobeto bizitzeko; gizartean gora egiteko giltza da beraienezat, ongizatearen igogailua, beraiak baino hobeto bizi direnak bezala bizitzeko sarbidea, betiere, gurean euskara administrazio publikoan lan egiteko beharrezkoa den artean.

Hasieran, eta orokorrean, etorkinak ez du euskararekin lotura afektiborik izango, instrumentala da hizkuntzarekiko jarrera. Eta hori kontuan izan beharko dugu. Horrek Pakistandik etorritako bizilagun batek aurretik hitzartutako ezkontzak defendatzeko erabilitakoak dakarzit gogora. Berarentzat, bakoitzak bere arrazoiak ditu ezkontzeko, eta hasieran maitasunik ez badago ere, etorkizunean elkarbizitzak sortzen omen du maitasuna.

Nik antzeko zerbait irudikatzen dut etorkinen eta euskararen artean. Hasieran komenentziazko ezkontza bezalakoa izango da: etorkinen behar instrumentalen (bizi-baldintzak hobetu) eta euskal gizartearen nahiaren artean (euskara biziberritu). Baina denborak aurrera egin ahala, etorri berrien euskararekiko



hermes



hermes



lotura, instrumentala izateaz gain, sentimentala ere izatera irits daiteke. Eta hori guri, bertokooi, dagokigu, gizarte zibilari, azken batean, eta administrazioari, batez ere, hori lortzeko lan egitea eta baliabideak jartzea dagozkio.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

HELBURU MAILAKATUAK IZAN:

Helburu errealistak eta mailakatuak izan behar ditugu gai honetan. Etor-kinen gehiengoa ez da euskaldunduko; areago esanda, oso gutxi izango dira heldutan gurera iritsitako atzeritarren artean euskaldunduko direnak. Egon badaude, eta euskaltegi-tako ikasleen artean, atzerrian jaiotako ikasleen por-zentajea gero eta handiagoa da.

2008an, “Gure Saltsan” telebista saioa ekoitzi genuen Erlo telebistan. Berez, gastronomiari buruzko telebista saioa zen; kanpotik etorritako bizila-gun batek bere jatorriko jaki bat prestatzen zuen euskaraz eta, bide batez, bere migrazio ibilbidea kontatzen zigun. Berritzailea izan zen saioa, ez zelako ohikoa kanpotik iritsitakoak joritasunez euskaraz hitz egiten entzutea eta, horregatik, Telebistaren Argia saria eman zioten 2009an⁷. Ez zen erraza izan kamera aurrean jartzeko prest izan eta euskaraz ondo moldatzen ziren etorkinak aurkitzea. Topatu genituen eta ekarri behar izan genituen Azkoititik, Sakanatik, Berango-tik, Sopuertatik, Goizuetatik eta Euskal Herriko beste bazter batzuetatik. Harrez-keroztik, hamabi urte joan dira eta egoera aldatu egin da, orain ziur naiz “Gure Saltsan” berri bat ekoitzi ahal izango genukeela bakarrik Zarautzen edo gure eskualdean, atzeritik iritsitako migratzaile euskaldundutakoen eskutik.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu ez dela esanguratsua izango heldutan euskaldundutze prozesua arrakastaz bukatuko dutenen etorkin kopurua. Hori dela eta, hauek proposatzen ditut:

1. Euskaldundutze borondatea duenari alfonbra gorria jarri eta errazta-sunak eskaintzea. Horrek, gaur, helduentzat euskaldundutze dugun irakaskuntza sistema berrikustea eskatzen du, batez ere, ikasleak horretarako ordaindu behar duen dirua, bai zenbatekoari dagokionez, baita ordainketa-epeteei dagokienez ere.
2. Berariatzko ikastaroak antolatzea: ekimen labur, malgu eta zehatzak etorkinak euskarara hurbiltzeko, jakinda ez dutela euskara ikasteko era-bat balio, baina bai, zenbait kasutan, euskara ikasten hasteko eta beti euskararen aldeko jarrera eriteko, alegia, hizkuntzarekiko lotura senti-mental hori lantzen hasteko. Horrela, hamaika izan dira xede horrekin Euskal Herriko herrietan barrena egindako ekimenak: ostalarientzako edo zaintzaileentzako berariatzko euskara ikastaroak, Aisa ikastaroak, euskara-harrerako ikastaroak eta abar.
3. Bestelako ekimenak antolatzea, euskara beraiena ere badela sentiaraz-teko, nahiz eta hitz egin edo ulertu ez, beren herriko hizkuntza dela eta beraien seme-alabena ere baden neurrian, berea ere badela sentiaraz-tea. Horrenbestez, integrazioaz ari gara, eta horretarako, kulturarteko-tasuna izango da erabiliko dugun integrazio eredu. Horrekin esan nahi dut gure hizkuntza eta kulturarako ateak zabaltzearekin batera, abia-puntua beren jatorrizko kulturaren aitortza jaso behar duela gure aldetik.

7. ARGIA
<https://www.argia.eus/sariak/urtez-urte.php> (Kontsulta: 2020-03-28).

Esandakoaren adibiderik onena Eibarren topatu dut⁸, Euskaraldian. *Aho-bizi* eta *belarriprest*-ekin batera, kategoria berri bat sortu zuten, *bihotzgoxo* izenekoa, euskara ulertu ez baina euskararen alde daudela adierazteko. Hain zuzen ere, horrelako ekimenak dira egitasmo eraginkorretarikoak migratzaile etorri berriak euskarara hurbil daitezen; izan ere, hizkuntza jakin gabe, euskararekiko sentimenduzko harremana garatzen hastea ahalbidetzen dute.

HASIERA-HASIERATIK:

Etorrinak euskarara hurbiltzeko hasiera-hasieratik has gaitzeko lanean:

Informazioa:

Ugari dira kanpotik iritsitakoen harrera lantzen duten herriak; gehienek harrera gidak dituzte; beste batzuek taldekako saioak egiten dituzte; beste batzuek, hitzaldi sortak...

Ez da nahikoa euskara ere badela aipatzea; hizkuntza egoeraren berri ere eman beharko diegu eta hor bidaide ona izan daiteke alderaketa beraien jatorrizko lurraldeetako hizkuntzekin egitea. Zenbaitetan, antzeko prozesuak bizitzen ari baitira beren herrietan; historikoki baztertuta egon diren bertako hizkuntzei garrantzia ematen hasi zaie Ameriketako hainbat lurraldeetan.

Harrera euskaratik:

Lehenago aipatu dudan bezala, Euskal Herrian bizitzeko euskara beharrezkoa ez denez, euskara ikastea ez dago etorri berriaren lehentasunen agendan. Beraz, etorri berriak helduera unetik euskarara hurbiltzea nahi badugu (besterik gabe jarrera lantzeko bada ere), zerbait eskaini behar dio euskarak iritsi berri horri. Lehen aipatu dugun euskararen arlo instrumental hori garatu beharko dugu.


Eta euskarak badu gaitasun hori herri euskaldunetan. Euskaldunak beste modu batean hartuko du, lau hitz badira ere, euskaraz zerbait egiteko ahaleginen den kanpotik etorri berri hori.

Eta hori baino garrantzitsuagoa da euskarak herrian integrazioa erraztuko duen harreman-sarea ehuntzen lagunduko diola, eta harreman sarea izaten da lana edo etxebizitza aurkitzen laguntzen duena. Euskara kontuan hartuko duen harrera sistema horrek arrakasta izateko, ezinbestean, bikotea behar du; tokiko bazkidea eta herriko eragileak, esate baterako, euskalgintzakoak, etorri berriei harrera euskaratik egiten badiegu euskalgintzako eragileek; gizarte arloko beste eragileekin elkarlanean harreraren parte hartu beharko lukete harrera-sare hori ehuntzen.

Marcelak ez du euskara ikasiko; bere seme-alabek seguru aski, bai. Ez dakigu zer jarrera izango duen Marcelak euskarari buruz. Baina guk badakigu migratzaileek atzeritik etortzen jarraituko dutela, gaur behar ditugulako eta etorkizunean ere beharko ditugulako.

8. EIBARKO UDALA

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/albisteak/eibarko-udalak-ere-euskaraldiari-hasiera-eman-dio> (Kontsulta: 2020-03-28).



hermes